

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

1317

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 6koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, Euskadiko Kanoe Federazioaren Estatutuen aldaketa onartu eta EAEko Kirol Elkarteen eta Federazioen Erregistroan inskribatzen duena.

Euskadiko Kanoe Federazioa EAEko Kirol Elkarteen eta Federazioen Erregistroan inskribatu zen 1986ko apirilak 25ean, 85 zenbakiarekin. Federazioaren estatutuen aldaketa aurkeztu da orain.

Euskadiko Kanoe Federazioak 2023ko otsailaren 8an egindako ezohiko batzar orokorrean estatutuen artikulua moldatzeko erabakia hartu zuen, eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.

Estatutuen aldaketa bat dator urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.

Ondorioz, nire eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Kanoe Federazioaren estatutuen aldaketa onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Elkarteen eta Federazioen Erregistroan inskribatzea. Honela geratuko da:

«12. artikulua.– Federazioak ematen dituen lizentzien iraupena urtebetekoa izango da, hots, denboraldi osorako, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.»

Bigarrena.– Legez ezarritako epean jakinaraztea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen kontra, ez baitu administrazio-bidea agortzen, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez dezakete Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuaren aurrean hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 6a.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria,
GORKA ITURRIAGA MADARIAGA.